



Arartekoaren 2013ko irailaren 11ko ebazpena. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio erantzuna eman diezaion lokal baten irisgarritasun araudiaren eta baldintza higieniko-sanitarioen betetzea ikuskatzeko egindako eskaera bati.

Aurrekariak

1. Pertsona batek adierazi digu Gasteizko Udalak ez diola erantzunik eman (...) kaleko (...). zk.n dagoen lokal baten ikuskapena egiteko 2012ko ekainaren 28an egin zuen eskaerari. Udal esku-hartzea eskatu zuen lokaleko komunean irisgarritasun araudia eta baldintza higieniko-sanitarioak betetzen zirela bermatzeko.

Kexagileak esandakoari jarraiki, ez du udalaren erantzunik jaso, ezta haren erreklamazioari erantzuna emateko bideratutako jardueren gaineko udal informaziorik ere.

2. Kexa hori izapidetzeko onartuta, 2012ko azaroaren 15ean Gasteizko Udalera jo genuen eta informazioa eskatu genion eskaera horri emandako izapidearen inguruan eta kasu horretan izapidetutako administrazio espedienteen inguruan.

Ez ziguten informazio hori ezarritako epean helarazi eta 2013ko otsailaren 12an Ararteko erakundeak bidaltzeko errekerimendua igorri behar izan zuen.

Ez genuenez gure eskaerarentzako berriazko erantzunik jaso zenbait kudeaketa burutu ditugu udaleko hirigintza arloarekin salaketa horren gaineko informazioa biltze aldera. Eraikuntzen zerbitzuarekin harremanetan jarri ostean, informazioa bidali digute erreklamazioaren alderdi baten inguruan, zehazki, irisgarritasun araudiaren betetzeari buruzkoa. Zehazki, udal arkitektoaren txosten bat jaso dugu eta bertan adierazi da lokala egokitzeko obrak eta jarduera irekitzekoak irisgarritasunaren arau teknikoei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua eta arkitektura-oztopoak kentzeko araudiari buruzko abenduaren 19ko 291/1983 Dekretua baino lehenagokoak direla. Txostenak, amaitzeko, ondorioztatu du obrak ez direla gauzatzen ari, beraz, ezin dela irisgarritasunari buruzko araudia bete dezaten exijitu.

Osasungarritasun baldintzei dagokienez, 2013ko maiatzean, Gasteizko Udaleko Ingurumen Arloak egin behar zuen salaketaren gaineko balorazioak egiteke jarraitzen zuen.





Edonola ere, Gasteizko Udalak helarazitako informazioan ez da ezer ageri kexagileari igorritako inolako jakinarazpenen inguruan eta horixe da kexaren arrazoi nagusia.

Aurrekari horiek ikusirik, eta kontuan hartuta Gasteizko Udalak eskatutako informazio guztia bidali ez duela eskatu bazaio ere, egokia iruditu zaigu ebazpen hau ematea, honako gogoeta hauen arabera:

Gogoetak

1. Erakunde honek esku hartu du, batez ere, Gasteizko (...) kaleko (...). zk.n dagoen lokal baten ikuskapena eskatuz Gasteizko Udalarari egindako eskaerari udal erantzunik eman ez zaiolako.

Salaketari erantzunez Gasteizko Udalak hirigintza arloko txosten bat baino ez digu bidali eta bertan aipatu da irisgarritasun araudia bete betetzen dela, lokalaren lizentzia irisgarritasun araudia baino lehenagokoa delako eta ondoren obrak egin ez direlako.

Hala ere, erakunde honek ez daki udal jarduerarik bideratu den kexagileak informazio horren berri eta aipatu lokala araudi higieniko-sanitarioarekin bat etortzen den egiaztatzeko ingurumen arloan jarraitutako behin-behineko neurrien berri izan dezan.

2. Hala, agerian jarri behar dugu aurkeztutako salaketari arrazoizko epean administrazio erantzunik ez ematea, erakunde honetan kexa jartzeko arrazoi nagusia, Gasteizko Udalaren funtzionamendu desegokiaren ustezko bat dela.

Orokorrean, herri-administrazioek, herritarrekiko harremanetan, administrazio prozeduraren bidez bideratu behar dituzte euren eginkizun publikoak. Administrazioak horrela jokatzeko arrazoiak xede bikoitza dauka: administratuen eskubideen bermea izatea eta, bestela, interes publikoarena berarena.

Administrazio izapideak eta herritarrentzako egiazko erantzuna egotearen bermea Espainiako Konstituziotik beretik dator –103.1 eta 105. artikulua- eta Lisboako Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartako 41. artikulua xedatzen duenez, herritarrek administrazio onerako duten eskubidearen baitakoak dira.

Administrazio egokirako eskubide horren barruan, honakoak aipa ditzakegu: aurkeztutako idazkien hartu-agiria, ofizioz bultzatzea eta agertutako kontuei





berariaz erantzun beharra. Halaber, administrazioak euren nahiari buruz erabil ditzaketen eskubideen berri eman behar die pertsoneri. Interesdunaren kexaren edo uziaren gaineko zehaztasunik ezak edo erreklamazioak bere jarduketa eremua gainditzeak ez du herri-administrazioa bere betebeharrak betetzetik salbuesten.

3. Ildo horretan, irisgarritasun araudia eta baldintza higieniko-sanitarioak betetzen ote diren egiaztatzeko lokal bat ikuskatu dadin eskatzen duen erreklamazio baten aurkezpenak dagokion administrazio izapidea behar du.

Udal horri bidalitako jakinarazpen guztiak, gertakari jakin batzuk jorratu eta ingurumen edo hirigintza kontrolari lotutako instalazioen edo jardueren ez-betetzea salatzen dutenak, salaketatzat jo behar dira eta dagokion organoari helarazi, izapidetu daitezten.

Salaketak, hirigintza eta ingurumen legezkotasunaren babeserako arloan ekintza publikoa baliatzerakoan, administrazio espediente baten izapidea ekarri behar du, hirigintza edota ingurumen arloko legeekin bat etorri eta **Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari** buruzko abenduaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako arauari jarraiki. Horrela bada, kontuan hartu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 34. artikulua zera xedatzen duela: *“Organo eskudunak jardunbidea irekiko duen edo ez eta, hala badagokio, jardunbide horri amaiera emango dion ebazpena jakinaraziko dio salatzaileri, honek horretarako eskubidea du-eta”*

Ildo horretan, salatutako alderdiak baloratu ondoren, organo eskudunak dagokion espedientea abiarazi edo ez aintzat hartu behar du edo, bestela, eskatzailearen uzia ez onartu. Edonola ere, ekintza publikoaren erabilerak alde interesatuei esku-hartzea arxibatu izanaren berri eman beharra dakar, kasu bakoitzean dagozkion ekintzak eta errekursoak erabili ahal izateko.

Lokaleko irisgarritasunaren ondotik bideratutako salaketaren kasuan salaketari erantzuna ematen dion eta araudia urratzen ez dela dion txosten bat dago. Baldintza higieniko-sanitarioei dagokienez, ez dugu ondorengo jardueren berri izan.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorri, honako gomendio hau egin dugu.





Gomendioa

Gasteizko Udalari egina, orain arte egin ez badu, merkataritza-lokal baten irisgarritasunaren eta baldintza higieniko-sanitarioen inguruan aurkeztutako 2012ko ekainaren 28ko salaketari erantzuna eman diezaion.

